

Historia argazkietan

Ainhoa Arozerak
osaturiko
erretratuen
liburua ▶ 6



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Asteartea ▶ 2007-05-15 ▶ V. urtea ▶ 1.160. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Kulturen arteko ezagutza eta harremanak sustatzeko ekimena

TOLOSA ▶ Ereite elkarteak 'Kulturartean' jardunaldiak antolatu ditu bihartik datorren astelehenera arte ▶ 5



Ezker-eskuin: Mayi Castillo, Ana Sanz eta Rita Calderon Ereite elkarteak kideak, atzo. I. TERRADILLOS

TOLOSALDEA ▶

Ekitaldi ugari gaur, San Isidro egunean

Baserritarren eguna ospatuko dute ▶ 6

BERROBI ▶

Antolatzaileek «oso gustura» azaldu dira Kultur Astearekin

Ekitaldietako parte-hartzea «altua» izan dela azpimarratu dute ▶ 7

N. URBIZU



ENRIKE TORQUEMADA ETA IÑAKI IRAZABALBEITIA ▶ EB-ARALAR-EN HAUTAGAIAK

«Ezkerreko politika egunero jorratuko dugu»

«Euskararen normalizazio soziala eta ingurumena» defendatuko dute ▶ 4

ceipro

Diseinuan eta kreazioan halmenean
oinarritutako neziketa

• **DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA**
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN
GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAILPENA - 2. ikasturte / 2000 ordu
SARRERA - LH1 - EE I - edo HSACL BAKTEREGOA gaituz

• **ARTE GRAFIKOEEN AURREINPRIMAKETAN TEKNIKARIA**
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN
ERDI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAILPENA - 2. ikasturte / 2000 ordu
SARRERA - 2. DBE - LH1 - EE I - edo DBH gaituz



IRUDIETAN ▶

Hautagaitza
zerrendak
aurkeztuzA. IMAZ - E. ZEIZA
ARGAZKIAK: ASIER IMAZ/HITZA

Hauteskunde kanpainaren baitan hautagaitza zerrenden aurkezpen ekitaldiak egin dituzte eskualdeko zenbait herritan. Tolosan, esaterako Eusko Alkartasunako ordezkariak datozen lau urteetan Udaletxean defendatuko dituzten baloreen eta proiektuen berri eman zuten. Bertan izan ziren, hautagaitza osatzen duten 19 kideak: Onintza Lasa, Andoni Iturzaeta, Josemi Gomez, Nerea Letamendia, Iñigo Vivanco, Merixel Lopez, Goar Artetxe,

Ana Mari Ruiz, Javier Telleria, Julepe Bastarrrika, Jose Leon, Marixabel Yarza, Kepa Diaz de Alda, Amaia Etxaniz, Mikel Arreseigor, Mari Nieves Insausti, Ramon Saizar, Mari Karmen Arregi eta Angel Mari Gaztañaga. Bestalde, atzo, Berastegim eta Asteasun izan zen Iñaki Galdos.

Amezketan, Kimu Berri taldea osatzen duten herritarrak nortzuk diren, eta beraien lan ildo nagusiak zeintzuk diren agertzeko ekitaldia egin zuten herenegun eguerdian. Bertan izan ziren herri plataforma osatzen duten amezketarrak: Jesus Ifurrita, Satur Zabala, Maider Romo, Juan Mari Amundarain, Juanan Garcia, Kepa Errezil, Yolanda Gorostidi, Kostan Sagastume, Iñaki Goñi eta Mikel Goñi.



Amezketako Kimu Berri taldea osatzen duten herritarrak beste zenbaitekin batera. HITZA

BI HITZETAN ▶ ELI NOSELLAS (ALURR DANTZA TADEKO LEHENDAKARIA)

«Egungo Udalak kudeaketa enpresa bat bezala funtzionatzen du»

Iñigo Terradillos ▶ Eli Nosellas ibartarra Alurr dantza taldeko lehendakaria da. Horretaz gain, Sendi Ekintza elkartearen lehendakaria ere bada. Hori dela eta, parte-hartze zuzena izan du eta izaten du Ibarran antolatzen diren kultur ekitaldiekin. Ibartar bezala eta kultur talde bezala une honetan dagoen Udala nola ikusten duen azaldu digu, hau da, narbarmentzen duena eta bete beharrezko hutsuneak zein diren aipatu dizkigu.

Zer-nolako balorazioa egiten duzu Ibarako Udalaren azken lau urteotako agintealdiaz?

Kanpoaldera begira lan egin dute, baina itxura asko izan da. Esan beharra dago herrian egiteko beharrezkoak direnak egin dituztela, eta hori ezin da ukatu; baina, jendeak ikusi beharko luke kale bat apaintzearekin bakarrik ez dagoela guz-

tia egina. Gauza gehiago hartu behar dira kontuan. Niri iruditzen zait funtzionamendu herrikoia bultzatzea falta zaiola Udal honi. Gauzak egiterako orduan, herritarrekin kontatu behar da, jendearen iritzia eskatu behar da. Guztien artean eraiki behar da herria. Egia da Udalarri zerbait eskatuz gero eman egiten dizula, baina ez luke horrela izan behar, denek artean hitz eginez erabakitzen baitira gauzak. Udalak kudeaketa enpresa bat bezala funtzionatzen du: diru kopuru bat du, eta eskatzera joaten zaizkio elkarteak-eta, eta honek banatu egiten du, gaiberako gastuekin bezala. Hori baino askoz gehiago da Udal bat.

Oro har, zer eskatuko zenioke hurrengo Udalari?

Eskatuko nuke esparru batek hauteskundeetan aurkezteko aukerarik ez badu, eta beraz, Udalean egon ezin badute,

agintean egongo denak dituen bitarteko guztiak jartzea era batera edo bestera guztien parte-hartzea bultzatzeko. Hori funtsezkoa da. Izan ere, oso eroso da esatea Madrildik jarritako debeku batengatik ezin dutela guztiak aurkeztu eta ez egitea ezer hori ekiditeko, eta besterik gabe agintean jartzea. Ez badu parte-hartzea bultzatzen, herria zati-tuko du.

Zure esparrutik, zer nabarmentu nahiko zenioke Udalari?

Herriaren tradizioa aintzat hartzea, bereziten gaituena horixe delako. Gure eskualdean, bereziki faltan botatzen dut dantza eskola bat, ditugun profesionalak kontuan hartuta. Horrela guztiak izago lukete gure folklorea ezagutzeko aukera. Eta ezinbestekoa iruditzen zaidana agintean dagoenak euskaraz jakitea.



MADDI SOROA

hilberria ▶

Juan Arin Dorronsoro

Herenegun hil zen, Ataunen, 80 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Goian bego —

Arima zuzendaria: Juan M^o Olaetxea; emaztea: Teresa Baztarrrika; seme-alabak: Pili, Jone eta Andoni; anai-arrebak: Asensio (†) eta Asun Arratibel (†), Maria (†), Inaxio (†), Juana (†) eta Santos Lasa (†), Pakita (†) eta Andres Arratibel (†), Joxe Manuel (†), Pilar eta Jose Lopez (†), Juan eta Pilar Baztarrrika (†), Puri eta Antonio Insausti; ezkon anai-arrebak: Juan M^o (†) eta Maria Palazabal (†), Juliana (†), Joxe eta Dominika Mujika, Sepeino (†), Aita Isidro (†); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuzte eta arren etorri zaitezela GAUR, ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN GREGORIO parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hilbidea: Telerdi baserria

ATAUN, 2007ko maiatzaren 15a

oharra ▶ gorpua Beasaingo Goierri beltzetan dago



Joxe Arin Dorronsoro

Ixil-ixilik ibili da hemen barrena,
egitekoak egin,
bizitzekoak bizi
eta ibili bezain ixilik joan zaigu

Zure ilobak

ATAUN, 2007ko maiatzaren 15a





Berastegin izan ziren atzo EAko bertako hautagaiak, eta beraiekin izan ziren Iñaki Galdos eta Luis Maria Oyarbide Garapen Iraunkorreko Foru Diputatuak. ASIER IMAZ



Tolosako Eusko Alkartasunak bere hautagai-zerrenda aurkeztu zuen herenegun eguerdian Zerkausion egindako ekitaldian. KLISK

EKITALDIAK ▶

TOLOSA

Gaur, 11:00etan. Alderdi Popularreko ekitaldia antolatu dute, hau Triangulon izango da.

DATUA ▶

9

Egun. Geratzen dira postaz bozka eman nahi dutenentzat hilaren 23a izango baita horretarako azken eguna.

ESANA ▶

ONINTZA LASA

EA-REN TOLOSako ALKATEGAIA

«Tolosako abertzale eta aurrerakoientzat aukera bakarra Eusko Alkartasuna da»

GUTUN@K ▶

AHTri ez esateko aukera!

Heldu dira berriro Udala eta Batzar Nagusietarako hauteskundeak, eta azken lau urte hauetan, Abiadura Handiko Trena (AHT) proiektuaren inguruan EAJ-PNV/EAREN Anoetako Udalak egin duena oso esanguratsua da. AHTaren egitasmoa oso lotuta baitago Anoetarron ongizatearekin, ingurumenarekin, baita ekonomiarekin eta demokrazia ulertzeko moduarekin ere, finen, nahi dugun herri ereduarekin.

Jakin badakigu, AHTaren proiektua erraldoia dela. Anoretan inoiz egin den azpiegiturik handiena da, egitasmoaren tamainak eta kostu ekonomikoak adierazten duten bezala. Gainera, atzera egiterik ez duen baldintzapena dakar. AHTaren proiektua guztiz txikitzailea da, kalte larriak eragingo baitizkio herriko naturari eta

Anoetarren bizi-kalitateari. Besteak beste, paisaiari eraso bortitza; zarata ikaragarria; lur-azpiko uren desregulazioa; 4 kilometro inguruko tuneletatik ateratako lurrak (metro bat materialez betetako 120 futbol zelai inguru) bota beharko dituzte bi hondakindegizuzgarritan; Zentralaren ondoan, mendi batetik bestera 120 metroko luzera eta 20 metroko altura inguruko zubi zaharra egiteko Gain-Berri etxea bota beharko dute... Guzti hau horrela izanik, atera kontuak, Udalak dio ez duela ezer jakin nahi. EAJ-PNV/EAKo korporazioak "AHT ez da Udalaren ezkuduntza" esanez eskuak garbitzea, argi eta garbi, guztiz arduragabea da.

Jakin badakigu, kapitalismoan, garraioaren hazkundea ere negoziotzat hartzen da. AHTa, autopistak, superportuak, plataforma logistikokoak eta, helburu horren barruan txertatzen dira. Administrazioek, garraio azpiegitura erraldoietan xahu-

tzen dituzte baliabide publikoak herritarren beharretan baino. AHTaren proiektuak, ordea, kamioien eta autoen kopurua ez ditu nabaritzeko moduan bideetatik kenduko. Komunikazio bideen kolapsoak jarraitu bakarrik ez, gainera, larriagotu egingo da. Eta ingurumenaren (besteak beste, aldaketa klimatikoaren), nekazaritzaren, garraioaren, pobrezia-aren, prekaritatearen, etxebizitzaren arazoak konpondu beharrean handitu egingo dituzte. "Jasangarritasunaren alde gaude" diote instituzio guztiek, baita Anoetako Udalak ere, baina, guzti hau errotik zeharo jasan ezina da.

Jakin badakigu, Madrilgo zein Gasteizko gobernuak herritarren iritzia gainera egitasmoa inposatzeko urratsak ematen ari dira. Eta baita Anoetako Udala ere, AHT proiektuaren inguruan informaziorik, eztabaidarik eta kontsultarik eman gabe jarraitzen baitu. Anoetako Udalak, jarrera ho-

nekin ezkutuan egon nahi du, baina, praktikan AHTaren alde egiten du. Eta Udalaren pobrezia demokratikoa ere adierazten du.

Jakin badakigu, AHTaren kontrako oposizioa eta baita bestelako borroka guztiak ere, kapitalismoaren aurkako eta jendartearen aldaketa sozialistaren aldeko borroka lotu behar dira. Eta kapitalismoak hartu duen munduko izaeragatik, sozialismoaren aldeko borroka ere, ezinbestean, muga nazionalen gainetik, inoiz baino beharrezkoagoa da. Kapitalismoarekin bukatzen dugu edo berak bukatuko du gurekin.

Guztiagatik, maiatzaren 27an, Udala eta Batzar Nagusietarako hauteskundeetan AHTari eta bultzatzen dutenei EZ esateko aukera ez dezagun galdu. Bozkatu EAE-ANV.

MANU ODRIOLA ETA JESUS MARI ARANZEGI (EUSKAL HERRIA SOZIALISTA ALDIZKARIKO KIDEAK) ▶ TOLOSALDEA

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

HILBERRIAK - URTEURRENAK

ESKERTZAK

Tosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



ENRIKE TORQUEMADA ETA IÑAKI IRAZABALBEITIA ▶ EB-ARALAR-EN ALKATEGAIAK

«Ezkerreko politika ez da hitzetan geratuko, eguneroko jardunean baizik»

EB-Aralar koalizioak, besteak beste, gerontologikoa, ingurumena eta euskararen normalizazio soziala defendatzen dituzte

NEREA URBIZU

Aurten estreinakoz Ezker Batua eta Aralar alderdiak elkarrekin aurkeztu behar dira udal hauteskundeetan. Tolosako lehenengo alkategaia den EBren Enrique Torquemada (Alegia, 1971) eta bigarren alkategaia, Aralarako Iñaki Irazabalbeitia (Donostia, 1957) «EAIri oposizioa egiteko aurkeztu dira, gizarte gaiak abiapuntutzat hartuz».

Zein da pasa diren lau urte hauetaz egiten duzuen balantzea?

Iñaki Irazabalbeitia: Guri dagokigunez, ezin dugu esan gure jardura positiboa izan denik lau urte hauetan. Bestetik aldaketa handiak izan ditu herriak, baina udaletxe askotan irudi kontuetan ibili direla pentsatzen dugu, eta sakoneko arazoetan ez dela sartu, edo sartu denean ez dela egoki sartu. Esaterako, etxebizitzaren kontuan Voith-eko alternatiba ez da egokiena. Beste alde batetik, hirugarren sektorea ondo zaindu da, baina bigarren sektorea, industria ahaztu egin da. Bertako gazteek bertan lan egin ahal izango dutela ziurtatu behar da.

Enrique Torquemada: Gerontologiaren arazoa dago ere, gaizki kudeaturiko arazoa. Administrazioaren funtzionamendua txarrendan dagoela dela uste dugu. Hauteskundeen aurretik plan berria aurkeztu dute. Eta zer gertatuko da itxaron zerrandan daudenekin eta bertako langileekin? Gainera, ustez, diru publikoarekin egingo dute kudeaketa pribatuko zentroa.

Ezker abertzalearen ilegalizazioa: Zer suposatuko du horrek?

E.T.: Demokrazia limitatu batean bizi gara. Gizartearen alderdi honek parte har dezan moduak ikuskatu beharko ditugu, baina erabakirik ez dago. EAEEK esaten duenarekin gauza bat ala bestea erabakiko dugu.

I.L.: Argi dago indarrak ezin ditugula neurtu beraiekin baldintza berdinean. Eta hori ez da ona. Tolosar guztiak izan beharko lukete nahi diotenari bozkatzeko eskubidea. Eguneroko lan horretan konfrontazio politikoa nahi genuke EAERE-



N. URBIZU

ILEGALIZAZIOA

«Gizartearen alderdi honek parte har dezan moduak ikuskatu beharko ditugu, baina erabakirik ez dago»

kin. Eguneroko lan hori haiekin egin nahi dugu. Bidegabekeria da egin dutena.

Zer eskaintzen duzue?

I.L.: Industria herrian ezartzea eta horretarako baldintzak jartzea; Babes Ofizialeko Etxebizitzetan alokairu sozialekoak bultzatzea; nekazar inguruak eta auzoak biziberritzeko plangintza garatzea. Euskarari dagokionez, normalizazio soziala indarberritzea eragile sozialekin elkarlanean. Ingurugiroaz, haren babesaren eta garapen jasangarriaren alde egingo dugu. Garraio publikoa sustatzeaz gain, TAO berraztertu nahiko genuke ere.

Santa Luzian ere aldaketak.

AHT

«Ez gaude euskal Y-aren alde: garraio publikoa nahi dugu eta AHTk ez du balio Gipuzkoako herriak hurbiltzeko»

E.T.: Bai. Biziberritzeko plan bat garatzea eta abian jartzea nahi dugu, auzoaren egoera eta bizitza-kalitatea errotik hobetzeko. Gazteei dagokionez, aisialdia herrian egin dezaten ekimenak sustatu nahi ditugu, gazteen elkarteekin elkarlanean. Udal gobernuan herritarren parte-hartzea bultzatzea neurriak hartu eta baliabideak ezarriko genituzke, adibidez, osoko bilkurak internet bidez emanez. Teknologia berriak herritarren artean sustatzeko plana ere aurrera eraman nahi genuke, wifi publikoko guneekin... Kirolari dagokionez, beste artean, Beotibar pilotalekua berriro nahiko genuke.

«ARGI ETA GARBI»

«Ez gara sartuko Udal Gobernuan baldin eta gehiengo orokor bat osatzeko beharrezkoak ez bagara»

Zuzenean eragiten duen gaia: AHT. Zer duzue esateko?

I.L.: Ez gaude euskal Y-aren alde. Garraio publikoa nahi dugu: proiektu honek ez du balio Gipuzkoako herriak hurbiltzeko, urruntzeko baizik. Trena nahi dugu, baina herriak gerturatuko dituen. Hemendik kostalderra edo Arrasatera joateko sekulako abentura da: hemen egunerokoa konpontzen duen garraioa behar da.

E.T.: Horrez gain, Udalak orain arte eman duen informazio oso eskasa izan da: harrobiak, mendien indausketak, lur mugimenduak izan behar dira baina ez dago inolako informaziorik Udalaren aldetik.

Euskarari laguntzeko zer egin behar da?

I.L.: Tolosaldea euskalduna da. Baina euskararen normalizazioaren prozesua areagotu egin behar da. Batetik badaude 20 urteko udal ordenantza batzuk; haien balorazio bat egiteko garaia da eta berriro egin beharko lirateke. Bestetik, udaletzeko barne funtzionamenduak euskaraz behar du izan, neurriak jarri behar dira. Hirugarrenik, badago gabezi bat mundu sozioekonomikoan eta horretan ere euskararen erabilera bultzatu behar da. Talderen bat eratzea ere beharrezkoa litzateke, sindikatuekin, euskalgintzarekin...

Zabortegeak Tolosaldean ere eragina izango du.

Bai. Guk, hasteko, uste dugu gutxiagotu egin behar dela zaborra: zaborrak birziklatzearena muturrera eramango dugu. Hori da gure politika. Materia organikoa biltzen duen bosgarren ontzia ere martxan jarri nahi genuke. Errausketari dagokionez, ez da irtenbiderik egokiena, inolaz ere. Ideiak ere baditugu, batez ere Alde Zaharrekoie dagokionez.

EB-Aralar koalizioak zeresana eman du.

E.T.: Oso ondo moldatu gara: lanean elkarrekin hasi ginen eta udal politikan bat-etortze handiak izan ditugula ikusi dugu. Udal politikan behintzat ez du eraginik. Programa egiteko orduan ados laister jarri gara. Ezker gehiago izango dira Udaletxean. Ezker ikuspegia islatu nahi dugu eta ez gara Udal Gobernuan sartuko.

I.L.: Tolosan behintzat ez dugu arazorik izan. Talde polita egin dugula ikusten dugu, hautagaien zerrenda orekatua eratu dugu, bai adina aldetik eta baita jatorriari dagokionez ere.

Zer gertatuko da maiatzaren 27an?

I.L.: Normalena bi zinegotzi ateratzea izango litzateke, baina espero dugu bi baino gehiago izatea. Ilegalizazioak, baina, egoera bitxia sortu du.

Udal Gobernuaren zainekin egingo zenukete?

I.L.: Argi duguna zera da: gu ez gara Udal Gobernuan sartuko baldin eta gehiengo orokor bat osatzeko gu beharrezkoak ez bagara; eta bi, sartuko ginateke programa baten inguruan eta adostutako ekimen eta ekintza baten inguruan, ez gobernu batzordean egotea hutsa. Ezkerreko politika ez da geratuko hitzetan, eguneroko jardunean ariko da.

E.T.: Udalean oposizioa egoitea beharrezkoa da. Komisioan sartuz gero, politika sozialak eta herrikoak lantzeko izango da, ez dugu sartu nahi zinegotzigoa kudeatzeko soilik.

GUTUN@K ▶

Zuzeneko tren
eta Tolosako
apeaderoa

Izan genuen azken bileran gaiarekin lanean jarraitzeko geratu ginen eta pauso batzuk zehaztu genituen. Alkatearekin hitz egin nuen eta esan zidan Diputazioa jakinaren gainean jarriko zuela, bere esku ez baitago gaia.

Orduan pentsatu nuen elkarriketaren bidea jarraituz hobe konpontzen direla gatazkak eta Diputazioko arduradunarekin hitz egin nuen. Lagu-

narteko elkarriketa bat izan genuen eta gure gaia present izango zuela eta Renfeko arduradunarekin hitz egingo zuela esan zidan.

Bere deia jaso dut eta udako ordutegian gure eskariak aintzat hartuko dituztela azaldu zidan. Ez dakit ziurtasunez zein eskari izango diren. Baina, negurako, oraingoz behintzat, ezin zidan ezer ziurtatu.

Uste dut gauzak poliki doa zela, eta denbora izango dugula neguko ordutegia berriz ere planteatzeko, izan ere, Tolosako Udalak autobusak jartzeko asmoa azaldu du gasolindegik.

tik. Ikusi eta gero aztertu beharko dugu.

MARIA PILAR HERAS ▶ TOLOSA

Laskoraingo ikasle ohien afaria

Zu, bai zu! Tolosako Paseo Berriko txaletean geundenean beti andereñoaren magalean eseri nahi zenuena; zu, bai zu! beti negarrez gelditzen zinen eta *mainontzi* burlatzen genizuna; zu, bai zu! Sakramentino-

etako patioan zegoen Ama Birjinaren estatuan botaka egin zenuena; zu, bai zu! patiora erortzen ziren zuhaitz hostoak benetazko helikopteroak zirela esaten zenuena; zu, bai zu! umeak nola egiten ziren frontoi gaineko gela batean kontatu zeniguna; zu, bai zu! gure ikastola Tolosako ikastetxerik txatuena zela zioen neska uniformedunari katekesisean zaplatzeko bat eman zeniona; zu, bai zu! «balin det jun komunera?» esan baino lehen galtzak bustitzen zenuena; zu, bai zu! kurtso amaieran San Juan sutara liburuak bota eta gero

errepikatzen gelditu behar izan zenuena; zu, bai zu! Abaltzisketara asteburu pasa joaten ginenean gosariko gailetak lapurtzen zenuena; zu, bai zu! ikastolan oso ondo pasatzen nuen, esaten duzuna; zu, bai zu! Gorosabel Zaharrean geundela, apeaderoako trenak bisitatzera joaten zinen; zu, bai zu! txabolak botatzean izkutuan negar egin zenuena; ikasle ohi guztiak, Laskoraingo ibilbidean parte hartu duzuelako gonbidatuta zaudete larunbat honetan egingo dugun afaria.

OLATZ HERNANDEZ SANCHO (IKASTOLAKO LANGILE OHIA) ▶ TOLOSA

ARETO FUTBOLA ▶

Berdinketa Laskorainek Lezoren aurkakoan

ERREDAKZIOA

Iragan ostegunean jokatu zuen partida Laskorainek Lezoren aurka, eta berdinke-tarekin amaitu zuten. Puntu bakar honek sailkapen nagusiko seigarren postua ziurtatzen die laskoraindarrei, bosgarren postuaren bila borrokatzeko aukera eskaini eta ia zko denboraldian lortutako puntu kopurua gaititu.

Partida «ona» jokatu zuten horitxoek Lezon. Bost minuturo laukoteak txandakatuaz, joko maila altua erakutsi zuten Egizabalek diseinatutako bi laukoteek, Laskorainen aukitxoak baduela sakontasuna frogatuz; defentsa zonal nahiko ongi burutu zuten eta erasoan ere lezotarrei dezentze min egin zieten.

Honela partida guztian zehar izan ziren ikastolakoak markagailuan aurretik. 1-2 atsedenaldira, eta bigarren erdian 2-5 ere ipiniko ziren. Baina, lezotarrek ez zuten amore eman eta «protesta, ostiko eta amorru koktelari eskerrak», bosna ipiniko ziren azken minutuetan eta Barriola eta Otxoa jokalaririk izan ziren bertan.

Harrobiari dagokionean, Alonsoren mutilen filialak 3-2 irabazi zion Legorretako taldeari.

KULTURA ▶

Kultura desberdinen artean harremanak bultzatzeko ekimena

Ereite elkarte multikulturalak antolatuta, 'Kulturartean' jardunaldiak izango dira bihartik datorren astelehenera

INIGO TERRADILLOS

Topaketak jardunaldien baitan *Kulturartean* izenburupean ekitaldi ugari antolatu dituzten egunetarako Ereite elkarte multikulturalak, «kultura desberdinak herritarrei ezagutarazi eta hauen arteko erlazioak bultzatu asmoz».

Ekitaldiok bihar hasiko dira, Alhoceiman —Maroko iparraldeko hiri bat— kokaturiko dokumental batekin. Europarako emigrazioa bihurtu da hiri honetako biztanleentzat etorkizuneko proiektu bakar, duela hiru belaunaldi baino lehenagotik. Juan Luis de No da zuzendaria. Etzi, berriz, beste dokumental bat izango da ikusgai, futbol-baseko jokalaria, klub eta futbol-taldeen gorabeherak kontatzen dituen, Smaal Hoine, Freddy Machaca eta Yakhya Diarraren bizipen bitartez, beste batzuen artean. Jose Luis Tirado da zuzendaria. Ondoren, mahai inguruaren egoitza berria jendaurrean aurkeztuko dute, eta musikaz gozatzeko aukera ere izango da. Larunbatarekin batera iritsiko da egun handia, egun osoko egitarauarekin.

Ostiralean, San Esteban kalean kokaturiko Ereite elkartearen egoitza berria jendaurrean aurkeztuko dute, eta musikaz gozatzeko aukera ere izango da. Larunbatarekin batera iritsiko da egun handia, egun osoko egitarauarekin.



Mayi Castillo, Ana Sanz eta Rita Calderon, atzo, aurkezpenean. I. T.

Goizean, Plaza Berrian, kultura desberdinetako tradiziozkoak diren elementuak ezagutaraziko dituzte, eta arratsaldean, berriz, dantza eta musika izango da protagonista. Ekitaldi hauek 70m2 eta 25m2 dituzten bi jai-ten inguruan gauzatuko dira. Arratsaldean, hauek alfombra, mahaitxo, kuxin eta chill out guneekin girotuta egongo dira, giro lasai bat sortzeko. Hau guztia, tearekin lagundurik. Egitarauetako azken ekitaldia

datorren astelehenean izango da. Dibertsitate Kulturalaren Nazioarteko Egunean, hain zuzen. Hermine Huntgeburth zuzendariaren *La masai blanca* izango da ikusgai. Kultura desberdinen arteko erlazioaren inguruko filma da.

Ereite elkarte kideek herritar guztiak animatzen dituzte antolaturiko ekitaldietan parte hartzera, kultura desberdinak ikasiz eta baita jende berria ezagutzuz ere.

'KULTURARTEAN' ▶

BIHAR

19:30. *Alhoceima, ciudad de espera* dokumentala, Kultur Etxean. Hizlaria: Latif Jatabi, Bilboko Azraf elkarteak kidea.

ETZI

19:30. *La liga de los olvidados* dokumentala, Kultur Etxean.

20:30. Mahai-ingurua Kultur Etxean, gaur egun tolosarrak diren jatorri ezberdinetako etorkinen artean. Isabel Rekalde moderatzailea.

OSTIRALA, MAIATZAK 18

19:00. Ereite elkartearen egoitza berriaren inaugurazioa. Ondoren, munduko musika Ezpeleta elkartearen tabernetan (Alde Zaharrean).

LARUNBATA, MAIATZAK 19

11:00-14:00. *Mundujai*, Plaza Berrian: Henna tatuaje tailerra (Magreb); Idazkera tailerra (arabiarra, xinatarra, zirilikoa); Txirikorda tailerra (Ekuatore-Ginea); Piñata tailerra (Latinoamerika); Haurrentzako aurpegi pintura tailerra; Origami tailerra (papiroflexia); *Munduari opari bat*, pin-ak egiteko tailerra; Te dastaketa (Magreb); Herrialde anitzetako jakien salmenta.

18:00etatik aurrera. Plaza Berrian: Ion Garmendia eta Iñaki Plaza, O+Hatz: Musika tresnak; Capoeira, Aldeia taldearen eskuz. Rizinahna maixua; Dantza tailerra (salsa, merengea, babxata); afarimerienda: kultura ezberdinetako errezetekin; Jum-Jum afrikar perkusioa; DJ Talo: Munduko musikak.

ASTELEHENA, MAIATZAK 21

20:30. *La masai blanca* filmaren proiektzioa Leidorren.

AMASA-VILLABONA ▶ GIZARTEA

Herriko historia argazkien bidez

Ainhoa Arozenak osaturiko 'Amasa-Villabonako erretratu zaharrak' liburua argitaratu du Larramendi Bazkunak

IMANOL GARCIA

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak *Amasa-Villabonako erretratu zaharrak* liburua argitaratu du. Ainhoa Arozena billabonatarra aritu da informazioa biltzen. Liburuak 504 orrialde ditu eta ia 400 argazki zahar ikusi daitezke bertan.

Lumane aldizkari bilduma egitearekin batera joan zen sortzen liburua egiteko asmoa. Bilduma horretan Amasa-Villabonako historia jaso zuen Ainhoa Arozenak berak, herriko edadetuekin hainbat gairi buruz elkarrizketak eginez. «Informazioa argazki zaharrekin osatu genuen. Konturatu ginen argazki zahar ugari zeudela eta hortik atera zen liburua egiteraren ideia», dio Arozenak.

Argazki zaharrak eskatu zituzten *Lumane* bertatik eta gero ere etxez etxe aritu ziren jasotzen. Guztira 1.000 argazkitik gora lortu zituzten. Ondoren etorri zen aukeraketa: «Kalitate onenak ziztuztenak eta hain ondo ez egon arren historia indartsu bat zutenak aukeratu ditugu», dio Arozenak. Liburuarekin «Amasa-Villabona lehen ere bizirik zegoela» erakusten dugu eta «historia hobeto ezagutzeko eta askotan aipatzen ditugun izenei aurpegia jartzeko balio du», azaltzen du egileak.

Liburua liburudendetan eros daiteke: Villabonan Basajaunen, Kazetariaren eta Mirarinen; Zizurkilan Zubiondon eta Amasan Iturrigoxo jatetxean. 30 euro balio ditu argitalpenak. Bestalde, Manuel Larramendi Bazkuneko Zizurkilgo, Andoaingo eta Urnietako egoitzetan lor daiteke ere. Aiurriko harpidedunek 25 eurotan erosi dezakete eta Bazkuneko bazkideak 20 eurotan.

Orotariko gaiak

Hamar ataletan banatzen da liburua. Amasa eta Villabona herrien nahiz eraikuntzen ikuspegiak agertzen dira lehenengoan. Hurrengoak herritarrei buruzkoak dira. Eskolak ere bere tarte du eta baita pisu handia izan duen erlijioak ere. Bosgarren atalean amasar eta billabonatarren eguneroko bizitza azaltzen da: etxean, kale-



Villabonako neska koadrila Pabxi Isasti soinujoarekin, 1929an. HITZA



Amasako Etxezarreta baserriko familia 1921 urtean. HITZA



Somatenak Amasako Larrañaga baserriaren aurrean, 1926an. HITZA

an, lantokian edo lagunartean. Testuinguru historiko eta politikoa agertzen da hurrengoan. Jai giroak eta folkloreak kapitulu bat osatzen dute. Lagunarteko bilkurek ere badute berea. Kirolaren ingurukoak ere ikus daitezke liburuan eta azken atala atzerrira joandako herritarren argazkiek betetzen dute eta hor pilotariaren ingurukoak ere ugariak dira.

Argitalpenaren amaieran aurkibidea dago. Aurkibide to-

ponimikoaz gain, argazkietan azaltzen diren pertsonen izendegia ere azaltzen da. Hain zuzen, Ainhoa Arozena egileak eskerrak ematen dizkie argazkiak utzi eta informazioa eman duten herritar guztiei. Denei eskaintzen die argitalpen mardula, baina bereziki Pako Etxenikeri eta Joxe Ugartemendiari. Bi hauek asko lagundu zuten liburua osatzen, baina argitaratu baino lehen beraien bizitza-aren amaierara iritsi ziren.

GIZARTEA ▶

Gaur ospatuko dute baserriarren eguna

ERREDAKZIOA

Baserriarren eguna da gaur, San Isidro eguna. Eskualdeko hainbat herritan ekitaldiak antolatuta dituzte, Asteasun, Iruran eta Zizurkilan, hain zuzen. Asteasun 11:15ean meza izango dute. 13:00etan erakustaldia probalekuan: Asteasuko Olarra-Goiko zaldia (1.200 kiloko harriarekin) eta Errezilgo bixkien idi pareta (1.200 kiloko harria eta 200 kiloko gain kargarekin) ariko dira lehian, 20 minutuko saioetan. Azkenik, 14:00etan bazkaria egingo dute Sarasola sagardotegian Amets Arzallus eta Sustrai Colina bertso-lariekin eta trikitilariarekin.

Iruran, Kultur Astearen baitan antolatuta dituzte ekitaldiak. 17:30ean jubilatuen jokoak egingo dituzte: bote eta toka plazan eta mahaijokoak Zaharren Biltokian. 19:00etan meza eta ondoren herriko dantzarien emanaldia plazan. 21:00etan herriko baserriarrentzat afaria Zaharren Biltokian.

Zizurkilgo ekitaldiak Maizta Saltsan kultur egitarauaren baitan kokatu dituzte. 11:00etan meza egingo dute. Horren ondoren, 12:00etan, aizkolari eta harrijasotzaileak ariko dira. Bukatzeko, 14:00etan bazkaria Plaza Etxeberri jatetxean trikitilari eta bertso-lariekin.

ANOETA ▶ POLITIKA

Udala, festa bateratuak ez egitearen «erantzulea»

ERREDAKZIOA

Anoetako ezker abertzaleak aurtengo herri festetan egitarau bateratua egongo dela eta Udalak egindako balorazioaren aurrean bere iritzia azaldu du prentsa ohar baten bidez. «Azken 3 urteetan festa bateratuak ez egitearen erantzulea Udala izan da», esan du ezker abertzaleak, «beraiek sorturiko arazo baten ondorio izan baita. Gainera konponbidearen giltza eskuetan eduki arren konpontzeko boronda-

terik izan ez duten arazoaren ondorioa».

Festa bateratuak antolatze-ko pausua eman dutenak ezker abertzalea, AHT Gelditu! elkarlana eta Gazte Asanblada izan direla azaldu dute, «betiere udal demokratiko eta egoera normalizatu bati begira, nahiz eta oraindik nahiko urrutiko egon». Ezker abertzaleak gaineratu duenez, ez daude «erabat gustura egoteko arazoirik oraindik ez baitira herritarren eskubideak errespetatzen».

ANOETA ▶

Festetako Xake Txapelketan parte hartzeko aukera

Herriko festetan Xake Txapelketa antolatuta dute. Ekainaren 9an izango da. Anoetako ume eta gaztetxoek hartu ahal izango dute parte eta Anoetako Ikastolan ikasten dutenek, nahiz eta anoetarrek ez izan. Bost maila egongo dira. Bakoitzean 3 kopa egongo dira irabazleentzat eta dominak emango zaizkie partaide guztiei. Izen-ematea hilaren 21era arte egin daiteke kiroldegian edo Ikastolan Patxi Arregi galdetuz.

ZIZURKIL ▶

Joxe Arregiko etxebizitzetarako izen-ematea

Joxe Arregi plazan egingo diren etxebizitzetarako buruz Zizurkilgo Udalak bando bidez adierazi duenez, gaur argitaratuko dute etxebizitzetarako hauen zozketan parte hartzeko eskabideak formalizatzeko baldintza administratiboen plegua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Foru Sustaneko etxebizitzetarako zozketan sartu ahal izateko eskabideak eta agiriak aurketeke epea gaurtik hasi eta ekainaren 15era izango da.

BERROBI ▶ KULTURA

ASIER IMAZ

Herenegun amaitu zen Berrobiko XVII. Kultur Astea. Zazpi egunetan ekitaldi ugari antolatu zituzten; besteak beste, tango erakustaldia, haur txikien dantza emanaldia, mendi irteera, sukaldari ikastaroa eta azken eguneko pailazoak.

Antolatzaileak orohar «oso gustura» agertu dira jendeak eman duen erantzunarekin. «Ekitaldi batzuk lehen aldiz antolatuta ditugu Kultur Astean, mendi ibilaldiak bezala, eta hauetan ere erantzun bikaina jaso dugu. Mendi martxan 12 heldu agertu ziren, 6-7 orduko ibilaldia egitera. Beranduago haurren mendi martxa zegoen, eta hemen guraso eta guzti multzo polita agertu zenu». Tango emanaldia ere azpimarratu dute, jende ugari bildu baitzen Etxolan. AGATA (Argentinako tangoaren Gipuzkoako zaleak) elkarteak kideek giro bikaina jarri zuten.

Azken egunean «gainezka»

Azken eguna azpimarratu dute bereziki antolatzaileek. Izan ere, igandean jende uholdea izan zen Berrobin. Goizean txakoli dastaketa burutu zen eta arratsaldean berriz pailazoak izan ziren Berrobiko frontoian. Poxpolo, Mokolo eta Konpainian 200 pertsona inguru elkartu ziren, frontoia goraino bete zutelarik. Txikienak ere oso gustura ibili ziren pailazoen jolas eta kantuekin.

Kultur Astea amaitu den arren, jadanik begiradak hemozortzigarren ekitaldian jarriak dituzte antolatzaileek, beti ere beharrezko atseden baten ondoren.

Kultur Astearen balorazio «ona» egin dute antolatzaileek

«Oso gustura» azaldu dira jendearen erantzunarekin, eta horien artean igandeko ekitaldiak azpimarratu dituzte



Azken egunean, Poxpolo, Mokolo eta Konpainiak herriko frontoia leporaino bete zuten. HITZA



Txakolin dastaketa eta ipuin kontalaria ikustera jende ugari elkartu ziren Berrobira. HITZA



PILOTA ▶

Gaur, bihar eta ostiralean HITZAko norgehiagokak

Erniopekoek txikienean hiru mailetan partida guztiak irabazi zituzten

NEREA URBIZU

HITZA Pilota Txapelketan gaur, bihar eta ostiralean izango dira partidak: kadeteenak Bidanian 19:00etan, 22 urte azpikoek Beotibarren 20:30ean, eta ostiralean jubilenenak Berastegin, 19:00etatik aurrera.

Kadeteak honakoak izango dira: Erniopeko Urbieta II.a Santxoren aurka; Murgiondo Jauregiren kontra; Iraola eta Madariaga hirugarren partidak, eta azkenekoa Araña eta Otegi.

Biharko bi partidak honakoak izango dira: 22 urte azpiko lehen partidak Narbarre-Iragi, Ojuel-Legarretaren aurka ariko dira eta bigarrenen, Larrañaga-Telletea Yoldi-Zabalaren kontra.

Jubilenen mailakoetan Elordi eskulako Ibaguren-Artola Ezkurdia-Etxeberria nafarren aurka izango dira lehenik, eta Barberena-Madariaga eta Albarado-Berrueta bukatzeko.

Aurreko emaitzak

Benjaminak Baliarrainen aritu ziren eta Erniopekoek irabazi zuten bi partidetan. Zazpi-Iturrik galdu egin zuen.

Alebinetan ere Erniope gailendu zen bi partidetan, batean Villabonakoei irabaziz. Erniopeko infantilek ere garaipena lortu zuten.

Gipuzkoako herrien artekoan Bidanian ezin izan zuten herritarrek irabazi, eta Andoainera joan zen garaipena, hiru partidak irabazita.

IBARRA ▶

Gurasoei zuzenduriko hitzaldia antolatu du Uzturpe Ikastolak

‘Psikomotrizitatea 0-6 urteko hurrekin’ aztertuko dute Jon Perez de Harriluzearekin

ERREDAKZIOA

Uzturpe ikastolak, datorren asteazkenerako, hilak 16, psikomotrizitateari buruzko hitzaldi bat antolatu du Ibarra Kultur Etxean. Hitzaldia arratsaldeko 17:00etan hasiko da eta Uzturpeko Haur Hezkuntza osoko gurasoei zuzendua egongo da. Uzturpetik jakinarazi dutenez,

parte-hartzea bilatzen dute, izan ere «garrantzitsua da guretzat hitzaldia guraso asko etortzea. Haur Eskola eta Ikastolaren lehentasunen artean, gurasoen kezak argitzeko espazioa eta denbora bat eskaintzea aurkitzen dira».

Proiektzio ezberdinak ere eskainiko dituzte gaztekeraz egingo duten hitzaldian.



Hitzaldi ugari antolatzen dituzte Uzturpe Ikastolakoek. HITZA

Tolosako Udala
IRAGARKIA
GARAJEEEN ZOZKETA ETA ALUKERAKETA
Udal jabetzako Emeterio Arrese 2ko 30 garaje eta Trianguloko 7 garajeen zozketa eta aukeratzeko ekitaldi publikoa, datorren ostegunean, maiatzak 17, arratsaldeko 8tan Udal Pleno Aretoan izango da. Tolosan, 2007ko maiatzaren 14an.
ALKATEA
Jokin Bildarratz Sorron

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. *Trekking Sahararen bihotzean* proiektzioa izango da Kultur Etxean (Mila Gallastegi eta Asier Aranzabal) 19:30ean.

Irura. Kultur Astearen baitan: jubilatuen jokoak plazan 17:30ean eta herriko dantzarien emanaldia 19:30ean.

Tolosa. Hilaren 20ean izango da Basurde elkarteak antolatu duen XV. Ibilaldi Neurtua, 07:00etan herriko plazatik, 6-8 orduko iraupenarekin. 5 kontrol eta 3 zerbitzu leku egongo dira. Partaide guztiei diploma emango diete.

Villabona. Zalama-Ordunte (Bizkaia) mendi zeharkaldia antolatu du Aizkardik iganderako. Izen-ematea, elkartearen edo 943 694458 telefonoan (Joxan).

Villabona. Felix Yarzaren omenezko pintura lehiaketa antolatu du hirugarren urtez Txinparta elkarteak datozen sanjoanetarako. Izen-ematea, maiatzaren 31 baino lehen elkartearen bertan.

Zizurkil. San Isidro eguna: 11:00etan meza; 12:00etan aizkolariak eta harri-jasotzaileak; 14:00etan bazkaria Plaza Etxeberri jatean trikitalari eta bertsolariekin. Izen-ematea, bertan.

Zizurkil. Bertso eta musika afaria Eñaut Agirre eta Amaia Agirre eta Jexux M^o Irazu bertsolariekin 19an 21:00etan Zentroan. Txartelak salgai 15 eurotan Zentroan eta Aurrera tabernan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.
Tolosa. Etxebeste, J.M. Gernikako arbola. 3. 943 651040.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HitzaZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Goiko eskolatik betti.*
 21:00-22:00. *Izarrak eta ilargia.*

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.



Alurr eta Udaberri dantza taldeen saioa ikustera jende ugari bildu zen Leidor aretora. Tradizioa eta berrikuntza uztartu ziren emanaldian. KLISK

Euskal giroa sustatuz

TOLOSA ▶ Lizardi elkarteak antolatuta, asteburu kulturalaz gozatzeko aukera izan da asteburuan; horrelako euskal festa egiteko asmoa dute aurrerantzean



Dantzari txikien saioa izan zen ikusgai Triangulon larunbat goizean. NEREA URBIZU

ERREDAKZIOA

Dantza, musika, kalejirak, kantak... Denetarik izan da asteburuan zehar Tolosako kaleetan, eta guztia euskal kultura eta tradizioa sustatzeko helburuarekin.

Ostiralean hasi ziren Lizardi elkarteak antolaturiko ekitaldiak txistulariekin eta herritarrekin eginko kalejirarekin. Herritarrek Lizardi elkartearen bertan eskuragarri zeuden euskal kantu aski ezagunekin osaturiko kantu liburuxkak hartu eta giro aparta sortu zuten Alde Zaharreko kaleetan. Larunbatean, berriz, dantza izan zen protagonista; goizean eta arratsaldean dantzari txikiekin, eta gauean, Alurr eta Udaberri taldeen saioekin. Azken hauek ikusteko, jende ugari bildu zen Leidorren, eta besteak beste, perkusio doinuekin uztarturiko dantza ikusteko aukera izan zen.

Azkenik, herenegun, kalejira ren ostean, bazkaria egin zuten Zerkausian. Euskal giroa ere protagonista, kasu honetan.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Oneka Artola Zabala
 (Alegia). Zorionak pobola. Ondo pasa!



URTE ASKOAN
Zorionak Amoni. Leire, Irati, Ainara eta Mikel. Semearen partetik besarkada bat.



URTE ASKOAN
Heiko Wim Nicu Callens
Atxaga. Muxu handi bat amabai, Lagun eta gurasoen partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko eztejak, ezkontzak, jaioberrak...